



SALBATORE MITXELENA IKAST
MARIA ETXE-TXIKI KALEA 1
20800 ZARAUTZ



ESKOLA KIROLA 2021-2022

Kurtso berria martxan dugu eta eskola kirola martxan jartzeko lanean ari gara. Aurreko denboraldia oso berezia izan zen, baldintzak gogorrak izanagatik ere, gurasoen borondate eta parte hartzeari esker, ekintza pila bat aurrera eraman ahal izan genituen. Beste behin, bihotzez eskertu nahiko genizueke guztioi egindako lana. Aupa zuek!

Aurtengoan, eskola kirolean eredu "normalagoa" egin ahal izango dugula dirudi. Oraingoz, asteburuetan, jardunaldiak egin ahal izango ditugu. Pandemia aurretik izaten genituen pilaketak ekiditeko, jardunaldien antolaketa ezberdina izango da. Printzipioz, lehiaketarik gabeko jardunaldi solteak antolatuko ditugu eta ahalik eta kirol ezberdin gehien lantzen saiatuko gara. Baina dena partaide kopuru eta kirol bakoitza kudeatzen duen elkartearen baldintzen arabera moldatuko dugu.

Duela urte batzuk ekin genion gure taldeetan eredu mistoa ezartzeari eta erronka horri helduz, aurten ere, talde mistoak osatuko ditugu. Izen ematearen arabera, ikasgelako burbuilak errespetatuz, bi talde osatuko ditugu gelako. Astean jolas egun bat izango du talde bakoitzak 16:30etatik-17:30etara. Inork, tokatutako egunean parte hartu ezin badu, bere gelako beste taldearekin jolasteko aukera izango du, eta jardunaldiak bere taldearekin jolastuko ditu. Jolas saio egunak horrela banatuko dira: **LH3:** astelehena edo asteartea, **LH4:** asteazkena edo osteguna, **LH5:** astelehena edo asteartea, **LH6:** asteazkena edo osteguna. Banaketa hau hurrengo urteetan ere horrelaxe mantenduko da, gurasoen eskolaz kanpoko ekintzen antolaketan laguntzeko. Dagoeneko, urtero zein egun tokatuko zaizuen badakizue.

Beste behin, gurasoen laguntza behar beharrezkoa dugu. Aurreko urtean indartu zen gurasoen sarea mantendu nahiko genuke. Talde bakoitzari, DBH-ko ikasle begiraleez gain, bi guraso arduradun jarriko dizkiegu. Taldearen egunerokoan sortzen diren kontuak gainbegiratzea izango da guraso hauen ardura. Koordinatzailea eta taldearen arteko zubi lana. Ardura txikia da baina oso beharrezkoa gure antolaketarako, beraz, parte hartzea asko eskertuko dugu. Begirale lanetan aritu nahi duen gurasorik bada ere jarri gurekin kontaktuan.

Irailean zehar, egutegia, taldeak, jolas saio egunak, guraso arduradunak... antolatzen jardungo gara. Eskola kirolean parte hartu nahi duenak, ondorengo izen emate orri guztiak bete beharko ditu. Eskola kiroleko izen ematea eta datu pertsonalen babeserakoa.

Edozein zalantzatarako hesteban@zarauzkoikastola.net helbidera idatzi edo deitu 605704395 telefonora.

Pasatzen ari garen garaiotan, garrantzitsua iruditzen zaigu lagunekin jolastu eta gozatzeko ekintzetan parte hartzea. Zuen laguntzarekin, denboraldiari ahalik eta zuku gehien aterako diogulakoan, animatu seme-alabak izen ematera eta zuek guraso arduradun bezala laguntzera.

Mila esker aldeztu aurretik.

KIROL AZPIBATZORDEA



ESKOLA KIROLA
2021-2022 Denboraldia
IZEN EMATEA

Kirolariak: Idatzi honen bidez, Urola kostako eskola kiroleko 2021-2022 denboraldian parte hartu nahi dudala sinatzen dut. Nire taldearekin parte hartu eta taldekideak errespetuz zainduz, jardunaldietara joateko konpromisoa hartzen dut. Joan ezin dudan jardunaldietan, egun batzuk lehenago jakinaraziko diot entrenatzaile edo guraso arduradunari, haiek antolaketa egin dezaten. Jardunaldiak aurrera eramateko lanean ari diren laguntzaile, epaile, beste ikastetxeetako kirolari eta entrenatzaileekin errespetuz jokatuko dudanaren konpromisoa hartzen dut.

Ikaslearen izen abizenak:

Ikasgela:

Guraso edo arduradunak: "idatzi honen bidez, gure seme-alabak, eskola kirolean parte hartzea baimentzen dut. Eskola kirola ondo pasatzeko eta jarduera fisikoez gozatzeko espazio izan dadin, jardunaldietan umore ona eta parte hartzen duten guztien babesa lehenetsiko ditut. Jarrera ezkor eta lehiakorak ez ditugu onartuko eta jardunaldiak aurrera ateratzeko lanean ari diren guztiei laguntzeko konpromisoa hartzen dut."

Guraso edo arduradunaren izen abizenak:

Sinadura:

TALDEKO GURASO ARDURADUN IZATEKO

Taldeak aurrera eramateko, taldeko, bi guraso arduradun ezartzea derrigorrezkoa dugu. Egin beharreko lana ez da handia. Batez ere, taldearen eta ikastolako koordinatzailearen artean komunikazioa mantentzea sortzen diren gauzak konpontzeko. Zure seme-alaben taldean guraso arduradun izatera animatzen bazara:

Guraso arduradunaren izena:

Telf zenbakia: **Helbide elektronikoa:**



IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA ESKOLA KIROLEKO PROGRAMAN 2021-2022	PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL DEL PROGRAMA DE DEPORTE ESCOLAR 2021-2022
Lagun hori,	Estimado y estimada amiga,
2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, Datuen Babeserako Araubide Orokorri buruzkoa xedatutakoa betetzeko, Eskola Kiroleko programari dagokion aplikazioan ikastetxeek txertatzen dituzuen datu eta argazkien babesa bermatzeko, Eskola Kiroleko programan parte hartzen duten ikasleen guraso edo legezko tutoreen onespren informatua izatea beharrezkoa da.	En cumplimiento de lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo al Régimen General de Protección de Datos, para garantizar la protección de los datos y fotografías que los centros escolares incorporen a la aplicación correspondiente al programa de deporte escolar, es necesario contar con el consentimiento informado de los padres y madres o tutores legales del alumnado que participe en el programa de deporte escolar.
Hori horrela, 2021-2022tik aurrera, ikastetxeko izen-emate orrietan ondorengo klausula txertatzea eskatu nahi dizuegu:	Por dicho motivo, a partir de 2021-2022, se solicita la inclusión de la siguiente cláusula en las hojas de inscripción del centro escolar:
<i>Izaera pertsonaleko datuen babesa Eskola kiroleko programan:</i>	<i>Protección de datos de carácter personal del programa de deporte escolar:</i>
<p><input type="checkbox"/> <i>Sinatzaileak ondorengo onartzen du (DERRIGORREZKOA):</i> <i>Interesdunak berriazko onspena ematen du Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak izen emate eskabidean emandako datu guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) Eskola kiroleko programan parte hartzen duten federazio, klub eta entitateei jakinarazteko, baita ikerketa zientifiko edo akademikoetarako ere. Informazio gehiago GFAko web orrian.</i></p> <p><input type="checkbox"/> <i>Sinatzaileak ondorengo onartzen du (AUKERAZKOA):</i> <i>Interesdunak berriazko onspena ematen du GFAko Kirol Zerbitzuak Eskola kiroleko programako jardueretan irudiak grabatu eta kudeatzeko, irudiok beharrezkoak baitira jarduerak antolatzeko eta hedatzeko.</i></p>	<p><input type="checkbox"/> <i>La persona firmante consiente lo siguiente (OBLIGATORIO):</i> <i>La persona interesada otorga el consentimiento inequívoco para que el Servicio de Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG) comunique los datos facilitados en el formulario de inscripción a las federaciones, clubes y entidades que participen en los Programas de Deporte Escolar de la DFG, así como a grupos de investigación científica o académica. Más información en la página web de la DFG.</i></p> <p><input type="checkbox"/> <i>La persona firmante consiente lo siguiente (OPCIONAL):</i> <i>La persona interesada otorga el consentimiento inequívoco al Servicio de Deportes de la DFG para la grabación y gestión de las imágenes en actividades del Programa de Deporte Escolar de la DFG necesarias para su organización y difusión de las actividades.</i></p>
<p>Ikastetxeak klausula hori inskripzio-orrietan ez sartzea erabakitzen badu, GFAREN ereduaren bidez baimen informatua eskuratzeko aukera ere badago, esteka honetan eskuragarri dagoena.</p> <p>Edozein zalantza argitzeko jarri harremanetan GFAko Kirol Zerbitzuarekin: kirolak@gipuzkoa.eus / 943112497</p> <p>Zure lankidetzaz aldez aurretik eskertuz, Kirol Zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundia</p>	<p>En caso de que el centro escolar decida no incluir dicha cláusula en sus hojas de inscripción, existe también la posibilidad de recabar el consentimiento informado a través del modelo de la DFG, disponible en el siguiente enlace.</p> <p>Para cualquier duda ponerse en contacto con el Servicio de Deportes de la DFG: kirolak@gipuzkoa.eus / 943112497</p> <p>Agradeciendo su colaboración de ante mano Servicio de Deportes Diputación Foral de Gpuzkoa</p>

Sinadura: